

1997ko URTARRILAREN 15eko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamazazpiko urtarrilaren hamabostean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentiz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

2.- IKURRIÑARI BURUZKO MOZIOA

Bere sorrera egunetik, ikurriña dugu Euskal nazioaren adierazgarri nagusia, Euskal Herritar guztiok batzen gaituen sinboloa izateaz gain, ikurriña da euskaldun guztiok topo egiten dugun gunea.

Datorren urtarrilaren 18an, frankismoaren ondorenean, ikurriñaren legeztatpena eman zeneko 20. urtearrena betetzen da. Hau dela eta LIZARTZAko Herri Batasunak Osoko Udal Batzarrari honako akordio hau hartu dezan eskatzen dio:

- 1.- Ikurriña da Euskal Herriko bandera nazionala.
- 2.- 1997ko urtarrilaren 1etik 19rako astean, Udaletxeko balkoitik ikurriña eskegita edukitzeko konpromezua hartzen da.

3.- Udalak bando baten bidez herritar oro, erakunde eta elkarteak, urtarrilaren 18an ikurriña euren etxe edo egoitzaren atarian ipintzera gonbidatzen ditu.

4.- Mozio honen onarpena komunikabideei igorriko zaie.

Lizartzako Herri Batasunak, Ikurriñari buruz aurkeztutako mozioa, aho batez onartua izan da.

3.- ABIADURA HANDIKO TRENAREN (AHT) AURKAKO ASANBLADAREN MOZIOA

Abiadura Haundiko Trenaren (AHT) Aurkako Asanbladak manifestazio batera deitzen du Urtarrilak 18, larunbatean Donostian "AHT ETA PROIEKTU TXIKITZAILA GUZTIAK STOP! EUSKAL GOBERNUA: DESARROLLISMOARI EZ" lemapean. Hortaz, AHT bezalako makro-proiektu desarrollistak eraikitzen Euskal Gobernuak zuzentzen duen, politikarekiko gure oposaketa adierazi eta horren geldieraztea eskatzeko antolatzen dugu mobilizazio hau, eta manifestazioaren deialdia zabalik dago sustengua eman nahi dioten giza-talde nahiz erakunde politiko guztiei. Izan ere, "Euskal Y"aren eraikuntza lanak 1998an hasiko direla berretsiz Maturanak eta Arias Salgado ministroak egindako iragarpenak ohartarazten du AHT indarrez eta egite kontsumatuz inposatzeko borondatea dutela, eta horrek mobilizazioaren alde dei berri bat egitera garama.

Zergatik erakusten ote du halako interesa eta setakeria Euskal Gobernuak AHTren egitasmoan, edonolako kontsiderazio ekonomiko, sozial eta ekologikoren gainetik pasatuz?.

Gure ustez, AHTren polemikaren bidez, berriro planteiatzen da Euskal Gobernuaren (E.G.) jokaera tamalgarria, hain zuzen ere kapitalismo basatienarekin bat egiten duen eredu desarrollista eta xahutzailearen neurriko proiektuak Euskal Herrian ezartzeko orduan. Azken urteotan, herriari informazioa gehien ukatuz eta ilunkeriaz gehien beterik E.B.k ekintzari egin

badu, horixe AHT proiektuarena izan dugu. Gaur egun, berriz, Abiadura Handiko Trenbide proiektuen moteltzea eta geldiketa gertaera nabaria denean Europako herrialde askotan, E.G.k AHT etorkizuneko proiektu bakar eta beldiezin modura azaltzen digu. Eta areago oraindik, E.G. "Y"aren lanak kostatuta ahala kostatuta hastearren egiten ari den presio politikoak ikusirik eta proiektu gaitz honen hastapenetik ezarritako ilunkeria ezaguturik, salatu egiten dugu bera agerdi dela abiadura handiko trenaren burutzapenak, gelditzen ez badugu behintzat, naturaren kontra eta orohar euskal gizartearen aurka suposatuko duen eraso bortitzaren erantzule nagusi gisa. Zeren Espainiako gobernuak eta Europako Batasunak egiten dutena hau ala bestea izanik ere, horrek ez baitu libratzen E.G. proiektu honetan beregain hartu dituen erantzukizun larrietatik.

AHTrekin batera, Eibar-Gasteiz Autopista edota Lezoko Autobia, Superportua, Itorizko Urtegia, kirol kaiak, e.a. arbuiatzen ditugu, zeren eta guztiak estrategia desarrollista hortan oinarritzen diren proiektu txikitzaileak direlako. Administrazio ezberdinek euren artean kontrajarririko lehentasun desberdinen gaineratik, planteiamendu desarrollista berberak gailentzen dira, azpiegitura handiak eraikitzen daraman arrazoigabekeria bera.

Une honetan, beharrezkoa da AHTren aurkako gure oposaketaren arrazoi batzuk gogoratzea:

Eraso ekologiko itzela suposatuko du, bai trazaketaren eraikuntza lanek lurralde menditsu honetan sortuko duten txikizioarengatik, eta bati AHTren burutzapena eta ustiaketa ahalbidetzeko helburuarekin egingo diren ekintza guztien kausaz, narriadura ekologikoarekin lotura duten ondorio-kate amaigabea birsortuz: ekosistemen suntsiketa, kotzentrazio eta presio urbanoaren areagotzea, kontsumo energetiko handiko teknologien sustapena - jatorri nuklearreko argi-indarra, neurri handi batean, AHTren kasuan-, giza iharduerekiko inpaktu sozio-kulturala, e.a.

Ondorio Ekologiko oso larriak ekartzeaz gain, kostu ekonomiko altuenak ere ematen ditu. Baina ez dezala horrek inor nahasi! AHTak trenaren

susperraldirik ez, baizik eta trenaren heriotzerako beste aurrerapausu bat da, standing altuko bidaiari saldo bati lehentasun osoa emanaz, eta helburu horri makurtzen zaio bai ingurugiro eraso eta bai eredu berrian bazterturik geratuko liratekeen herrien trenbidezko inkomunikazio ziurra. Eta Maastricht-eko "proiektu europearra"ri buruz, administrazioek AHT eta Eibar-Gasteiz Autopista bezalako Sare Transeuropearren defentsan erabiltzen dutena, geroz eta argiago dago zertan den: hau da, kontinenteko eliteen interesen defentsarako, herrien interesen bizkar eraikitzen den erresuma.

Guzti honek erabateko pobrezia demokratikoan du bere itzulpen politikoa, erabakiak biztanlegoaren kontrolpetik geroz eta urrunago hartzen direnean eta herrilanen politika sistemaren autoritarismoa, sekretismoa, manipulazioa eta, batez ere, ustelkeriaren gotorlekua denean.

Interes ekonomikoak eta politikoak tartean daude, oso kritikagarria den progresuaren eta bide-bakarreko aurrerapenaren idealari lotuta beti.

Guzti horregatik, LIZARTZAko Udalarari proposatzen zaio, bat egitea, manifestaldiaren edukinarekin eta berau bultzatzeaz gain, hiritarrei bertan joan daitezten gonbidea luzatzea.

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Aurkako Asanbladak aurkeztutako mozioa, aho batez onartua izan da.

4.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

Alkateak, Tolosaldeko Mankomunitatea sortzeko estatutuak egiteko orduan ados jartzeko izan diren arazoak direla eta, Tolosako Udaletik eginiko eskaeraren berri eman du; hau da, bidalitako Estatutu Proiektuaren onarpenean oinarrituta, Mankomunitatearen sustatzaile modura parte hau nahi den ala ez.

Gaia eztabaidatu ondoren, zera proposatu du:

Tolosako Mankomunitatearen sustatzaile modura parte hartzeko, Lizartzako Udalaren nahia agertzea.

Proposamena, aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.